Artikulu guztian zehar emango ditugun tontorretako azalpenak gutxi gorabeherakoak dira. Bitxikeria moduan jakin, hemen GR bezala ezagutzen ditugun ikurrak han borobil gorri eta zuriekin markatzen dituztela. Orokorrean oso ondo balizatuta dituzte igoera denak eta ia galbiderik ez dute. Eslovenia gainera, mendi federatu gehien duen herrialdea da bere populazioa kontuan izanik eta badute tontorrak bilduma egiteko grin hori. Liburuxka batzuk

erabiltzen dituzte tontorrera iristean buzoia- ren aldamenean egoten den zigiluan tinta eman eta hauek markatzeko. Bai bitxia eta elegantea.

Material aldetik nahikoa dira kaskoa, arnesa eta disipadore pare bat mendian gora gozatzeko. Sasoi pixka bat izanez gero, edozein tontor zapaltzeko aukera dago.

JULIOTAR ALPEAK

1 SVINJAK (1653 m)

LUZERA: 8 km (igo-jaitsi)

DESNIBELA: +1250 m | DENBORA: 5 ordu

Duela bi urte, Eslovenian izan ginen gure oporretako egun gutxi batzuk pasaz. Etxeratu baino lehen, Bovec izeneko herri batean pasa

Kanin

genuen gaua eta, herritik ikusten zen tontor honek harridura sortu zigun. Eguraldi txarra zela eta pena handiz baino ezin izan genuen zapaldu. Egiteke geratu zen beraz, eta aurten ezin izan diogu bere edertasunari uko egin. Bovec zonaldeko herritarrek Matterhorn edo Cervino txikia esaten diote eta Juliotar Alpeen mendebaldean kokatzen da.

Igoera oso polita du, bidearen zati gehiena pagadi eder batean gora da, hori bai, atsedetik gabekoa. Gure kasuan, Kal-Koritnika herrixkan dagoen aparkalekutik hasi genuen ibilbidea. Oso ondo balizatuta dago, basoko zuhaitzetan eta harkaitzetan ikurrak 10 pausuko topa ditzakegu. Altura asko lortu ondoren, basotik atera eta orduan hasten da Juliotar Alpeetako terreno ohikoena, kare-harriz osatutako bide bertikalagoak hain zuzen ere. Segituan topatu genuen panoramika zoragarria: Trentako bailara, Triglav-eko Parke Nazionalako mendiak eta Soča izeneko erreka ur garden eta turkesak. Goiz baterako oso mendi erreze eta gomendagarria. Ez da materialik behar.

2 ROMBON (2208 m)

LUZERA: 7 km (igo)

DESNIBELA: +1750 m | DENBORA: 4 ordu

Hau ere Parke Nazionalaren mendebaldean kokatzen da eta igoera erraz bezain luzea du. Bovec herriko kanpinean egun batzuk pasatzen ari ginenez eta, herria 5 minutura oinez dagoenez, bertatik abiatzen den ibilbidea aukeratu genuen, nahiz eta badiren beste igoera batzuk.

Elizara doan errepidean kartel bat topatuko dugu, Rombon 5 ordu eta Kanin 7 ordu idatzita. Elizatik goraka abiatuko gara hau eskuinera utziz. Bost minutura, bide gurutzean eskuinera hartuko dugu aldapa gora doan errepide estuago batetik eta segituan lehenengo etxe parean ezker aldeko pista hartuko dugu. Puntu hau klabea da, ez baitago oso ondo seinaleztatuta eta tarteka marra hori batzuk topatuko ditugu, Eslovenian erabiltzen diren ikurrekin konbinatuz (borobil gorri baten barruan zuri bat). Segituan, bidezidor bat topatuko dugu, segidan abeltzaintzarako erabiltzen diren larreak zeharkatuz. Harrizko harresi batetik igaroko gara eta etxe baten parean langa bat pasako dugu, pistan ezkerreara hartuz.

Ordu erdira hasiko da benetako bidea, hemendik 4 ordu eta erdi gelditzen zaizkigula adierazten duen kartel batekin egingo dugu topo. Lehen zatiak (luzeena) pagadi batean zehar hedatzen da, hau ere atsedetik gabeko maldekin. Ordu eta erdi bat egin ostean,





Mala Mojstrovka

Planina Goričica izeneko aterpe libre batera iritsiko gara basoko bidea bertan bukatzen delarik (1336 m). Hemen eskuinera hartuko dugu bidezidorra estutzen delarik. Belardi eta harkaitz bideak konbinatuko dira eta ikurrak tentuz jarraitu beharko ditugu.

Gerra garaian izkutatzeko erabiltzen ziren eta jada hondatuta dauden bunker eta gordeleku anitzekin topo egingo dugu igoe-ran zehar Cucla tontor parean dagoen bidegurutzeraino. Cucla-ra gerturatzea merezi du, gerran hildakoen oroimenez dagoen harrimultz eta oroigarria ikusteko (1756 m). Segituan, pareta baten azpian aurkituko gara eta harritza batetik gora egin beharko dugu kanal batean tarteka eskuak erabiliz. Aurre-ratxoago, azkeneko bidegurutzea topatuko dugu, kasurik egin gabe goraka doan bideari ekingo diogu. Ordu erdi batean tontorra zapaldu eta ikuspegi zabalaz gozatzeko moduan izango gara. Ez da beharrezkoa aparteko materialik eramatea.

3 KANIN (2587 m)

LUZERA: 4 km (igo)

DESNIBELA: +400 m | DENBORA: 2 ordu

Mendebaldean kokatzen den eta Italiarekin mugan dagoen tontorra da. Aukera asko daude gailurra egin ahal izateko, baina behko bailaretatik abiatzen bagara gehienak desnibel haundiko igoerak izango dira. Beste aukera polit eta errazagoa, Bovec herrian teleferikoa hartu eta 2200 m-ra utziko gaituen puntutik hastea da. Guk hankei atsedean pixka bat ematearren, azken aukera honen alde egin genuen.

Lehen zatian, harritza motz bat gainditu beharko dugu bidegurutze batera iritsi arte. Hemen ezkerrean doan bidea hartu eta igoe-ra txiki batean gora egingo dugu (eskuinera doan bideak Okno izeneko leiho ikusgarri batera eramaten gaitu, baina guk beheranzkoan bisitatzea erabaki genuen). Igoera honetan ez

dugu aparteko materialik beharko, erreza da eta kaskoa eramatearekin nahikoa izango da. Hau gaindituta, benetan ikusgarria den paisaia karstikoan barneratuko gara. Kanin-era doan bidea oso eroso da hasieran, une oro gure eskuinera dagoen paretaren azpiko alde-tik doan bidetik joango baikara. Bide honetan ordu bete egin ostean, gandor eroso bezain zabal batean sartuko gara, tarteka iltzeak eta kateak lagungarri izango ditugun bide gora-beheratsuan zehar. Hemen gozatea besterik ez zaigu geratzen, konturatzerako Kanin-eko gailurrean izango gara. Beste behin ere, bikain balizatutako bideetan zehar ibiliko gara hasieratik bukaeraraino.

Beheranzko bidean, hasieran aipatu dugun bidegurutzean, Okno leihoa bisitatzea erabaki genuen. Leku ikusgarria da, baina oso jendetsua. Hemen geundela, umeentzako prestakua dagoen via ferrata batek hasierako puntura eramango gintuela konturatu ginen beraz, ez genuen bi aldiz pentsatu. Kontuan

izan, Okno-tik teleferikoraino doan ferratan alderantzizko noranzkoan joango gabela (hau da, ferrata teleferikoan hasi eta Okno leihoan bukatzen da), beraz momentu batzuetan go-ranzkoei tokia utzi beharko diegu. Hemen, arnesa eta disipadoreak eramatea beharrezkoa litzateke.

Esan beharra dago teleferikoa ez dela eguneroko martxan egoten beraz, komeni da plana egin aurretik Bovec herriko informazio gunean galdetu eta konfirmatzea.

4 MANGART (2679 m)

LUZERA: 8 km (igo-jaitsi)

DESNIBELA: +800 m | DENBORA: 4 ordu

Ipar mendebaldean kokatzen den eta Italia-rekin muga egiten duen menditza ikusgarri bat da, goiz batean errez egiten den tontorra. Abiapuntua Bovec herritik Italiako Tarvisio-ra doan errepidea hartuz topatuko dugu. Log pod Mangartom herria zeharkatu eta iparralderantz segituz eta errebuelta batzuk egin ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara. Hemen eskuinera hartu eta Mangart azpira

eramango gaituen mendatean gora joango gara, Italiara doan noranzkoari jaramonik egin gabe. Errepidea asko estutzen da eta segituan 5€-ko "Eko Tasa" bat ordaindu beharko dugu langa batera heltzean. Mendate bukaeran aparkaleku batera iritsiko gara, gure ibilgailua bertan utzi eta Koča Mangartskim sedlu aterpera zuzenduko gara gure igoera hasteko.

Zintzo ikurrei kasu egin eta ordu erdira bidegurutze bat aurkituko dugu. Hemen bi aukera ditugu: Via Ferrata bide esloveniarretik edo italiarretik igotzea. Guk esloveniarretik edo italiarretik jaisteko. Izugarri gozatzeko ferrata da beraz, zirkular haxe egitea da aukerarik hoberena. Kaskoa eta arnesa jantzi eta prest gaude paretan gora gozatzeko. Oso ondo ekipatuta dago eta arriskutsu samarra da zenbait tokitan, adrenalina askatzeko aproposa. Horren gustura zoaz paretan gora, konturatu orduko tontorrean zaudela. Horixe pena haundiena, igoera oso motza egiten dela. Hemengo bistak ere izugarriak dira eta merezi du hamaiketako lasai bat egiteak. Jatsiera eroso bat nahi bada italiar bidea da gomendagarrienak.

5 JALOVEC (1645 m)

LUZERA: 17 km (igo-jaitsi)

DESNIBELA: +1550 m | DENBORA: 8 ordu

Esloveniako Mendi Federazioaren ikurra da eta bertakoentzat oso kuttuna den tontorra. Mangart-en antzera honek ere igoera asko ditu; hori bai, desnibela kontutan izan behar da ibilbidea aukeratzeko. Guk Vršič mendatek iritertzen den igoera proposatzen dizuegu. Batik bat, 1611 m-ra abatzeko aukera ematen duelako. Mendate edo igarobide hau, 50 errebuelta itxi dituen XX. mendeko ingeniariarza aparta duen eta Kranjska Gora eta Bovec herriak lotzen dituen errepide alpinoa da. Lehenengo Mundu Gerran zehar preso errusiarrei eginarazi zieten Alemaniak eta Austro-Hungariak Italiarekin zuten gudan zehar.

Guretzat egin dugun tontor ederrenetako bat izan da, berriz ere gustura errepikatuko genukeena, gehien bat lainoak harrapatu gintuelako eta ikuspegiaz gozatzeko aukera galdu genuelako. Astean zehar egin genuen eta ez genuen jende askorekin topo egin, baina eguraldi ona suertatzen den asteburuetan ziur jende asko ibiliko dela bertan.

Jalovec bidean





Vršič-eko igarobidean mendebalderantz doan bidezidorra hartu eta mendi magala alderatuz 5 km beteko ditugu lehen bidegurutzera iritsi baino lehen. Zidor hau nahikoa gorabeheratsua da, baina ez da apenas altuerarik galtzen eta gehiena basoko bidea da. Bidegurutzean eskuinera hartuko dugu atsedetik gabeko baso eta zuhaixka artean doan zidor aldapatsu batean gora eginez. Oso ondo balizatua aurkituko dugun bide honek harrizta batera hurbilduko gaitu eta, segituan pareta baten azpian utziko gaitu. Horma honek, ondo

ekipatuta egon arren, ez du altzairuzko kablerik beraz, igoeran zehar ezingo dugu inora lotuta joan. Horrek esan nahi du tentuz handiz joan beharreko igoera dela (horma bertikala baita). Hau gaindituta, lepo batera eramango gaituen beste harrizta eroso batean gora egin beharko dugu. Lepoan altura pixka bat galdu eta, tontorrera eramango gaituzten ikurrak segituz, ekipatuta dagoen azkeneko igoera gainditu beharko dugu. Azkenik, mendi-ertzean zehar zeharkaldi txiki bat egin eta hortxe topatuko dugu Jalovec tontor ederra. Benetan ederra!

6 MALA MOJSTROVKA (2333 m)

LUZERA: 6 km (igo-jaitsi)

DESNIBELA: +700 m | DENBORA: 4 ordu

Goiz pasa bat egiteko oso gomendagarria. Desnibel gutxikoa da eta iparraldera ematen duen paretak oso ekipazio ona du. Kasikoa eta disipadoreak derrigorrezkoak izango dira zenbait tokitan, hormaren zati askotan hezetasuna topa dezakegu eta. Abiapuntua hemen ere Vršič mendatearen gaina da. Kasu honetan, aparkalekutik iparraldera egin

7 ŠPIK (2472 m)

LUZERA: 4 km (igo)

DESNIBELA: +1000 m | DENBORA: 3 ordu

Herialde honetan, beste askotan bezala, Parke Nazionalan ezin da norberaren ibilgailuarekin edonon gaua pasa (bertako polizia isunak jartzen ditu). Gure kasuan, bidaia furgonetaz egin genuenez, kanpinetan sartu behar izan genuen egunero. Gozd-Martuljek herrian Špik izeneko kanpin bat dago eta bertatik dauden bistak izugarriak dira. Tontor batek bereziki bertan egoteko nahia piztu zigun, mapetan begiratzen hasi eta zein kasualitatea, kanpinak mendiaren izen bera zuen! Horrela erabaki genuen mendi hartara joan nahi genuela.

Mendi honek bi igoera ditu: bata oso zakarra eta zuzena eta bestea, berriz, guk aukeratu genuena. Kranjska Gora herritik Vršič-eko pasora doan errepedeko hirugarren errebueltan kotxea utzi eta ordu erdi exkaxean Koča v Krnici aterpera iristen gara. Bertan seinale handi batek adieraziko digu Špik mendira igoera. Lehen ordu eta erdia ez da oso atsegina, elurra urtzean sortutako erreka lehor batzuk zeharkatu behar baitira. Ondoren, baso eta zuhaixka gune batzuetatik igo eta pixkanaka, landaretza bukatzen doan heinean, hasten gara karst gainean oinez. Hemendik Lipnica izeneko tontor txiki batera iritsiko gara eta azkenik, gailurrera igoera erreztatik. Ez da arnesik behar, kasko bat eramatea nahikoa da.

8 RAZOR (2601 m)

LUZERA: 17,5 km (igo-jaitsi)

DESNIBELA: +1600 m | DENBORA: 8 ordu

Triglav Parke Nazionaleko klasiko bat da. Guk egin ditugun tontorretatik ederrera eta osatuena dela esango genuke. Honek ere Triglav mendiaren antzera igoera eta aukera asko ditu, baina guk egunean igo eta jaisteko erabakia hartu genuenez, desnibel gutxiago eta nahikoa zuzena den ibilbidea aukeratu genuen. Beste behin ere gure abiapuntua Vršič-eko mendate gaina izan zen. Gailurrera iristeko materiala beharko dugu, hasiera erraza duen arren, tontorra baino lehen aurkituko dugun pareta bertikalean gora egin nahi badugu (arnesa eta disipadoreak nahikoa dira).

Vršič-eko mendatean, Tičarjev dom aterpera doan pista hartu eta Prisank mendira hurbilduko gaituen bide zidorra segitu beharko dugu. Bide honetan 15-20 minutu egin ondoren, harrizta bat alboratuko dugu Prisank mendiaren azpitik lehen bidegurutzetara. Aurreago Prisank mendiaren laburpentxoan egingo



Razor

beharko dugu oso ondo balizatia dagoen bidezidor batetik. Ondoren, Vratica lepora (1799 m) iritsiko gara eta hemen ezkerrena (mendebalderantz) hartuko dugu bikain ekipatua dagoen paretaren azpiko alderaino. Kaskoa eta arnesa jarri eta, berriz ere, paretan gora gozatzer! Honek ere igoera motza du, baina zenbait tokitan exigentea izan daiteke. Aipatu beharra daukagu, nahiz eta mendia oso garaia ez izan, bista ikusgarriak dituela beraz, hartu denbora hamaiketako lasai egin eta ikuspegiak gozatzeko.

Jaitsierari dagokionez, guk tontorretik hegoaldera doan harrizta hartzea erabaki genuen, hau ere ondo markatua. Prestatu belaunak harrizta amaigabe honetan zehar jaisteko. Beste aukera bat etorri garen tokitik bueltatzea litzateke, baina guk zirkularra egin nahi izan genuen. Malda hauek jaitsi eta gero, bada artikulazioetako min guttiak kenduko dizkigun gauza bat, Tičarjev dom aterpean prestatzen dituzten bazkari goxoak! Ez joan Esloveniatik hemen otordu bat egin gabe!

dugu, baina kasu honetan eskubira doazen indikazioak jarraituko ditugu eta bertan Razor 5 ordu jartzen duen kartel bat topatuko dugu. Metro gutxi batzuetara, bigarren bidegurutzera hartuko dugu eta beheraka altura dezente galduz joango gara baso eta zelaietan zehar. Puntu batean jaisteari utziko diogu eta berriz ere, pixkanaka altura hartzen hasiko gara.

Bi ordu inguru egin ostean, terreno hobean sartu eta malda handituko da. Bidezidor nabarmen batetik hirugarren bidegurutzera heltzean, eskuinera egingo dugu eta Razor azpiko lehen paretan sartuko gara. Kaskoa eta material dena jarri, indarrak hartu eta hementxe hasiko da gozamina. Bidea oso ondo balizatuta aurkituko dugu eta Juliotar Alpeetan ohikoa den bezala, oso ondo ekipatuta. Momentu batzuetan badirudi ezinezkoa dela horma hauetan bideak egotea (kosta egiten da bisualizatzea), baina aurrera egin ahala, edonon azaltzen dira guretzako hain kuttunak izan diren ikurrak.

Paretetan gora 1-1,5 ordu daramatzagunean, lepo batera iritsiko gara. Eskuinera Planja tontorra ikusiko dugu, parean behera begiratuz gero, Pogačnikov dom aterpea eta, urrutira, Triglav tontorra. Guk ezkerrera joko dugu, geroz eta bertikalagoa den harrizta batean zehar. Behin hau gaindituta, gehien gozatzeko mendiaren zatia geratzen zaigu aurretik, azkeneko pareta bertikala eta tontorrera eramango gaituen mendi-ertza. Zeinen ondo sartzen den hamaiketakoa horrelako gozaturia hartu eta gero!

9 ŠKRLATIČA (2740 m)

LUZERA: 14 km (igo-jaitsi)

DENSBELA: +1800 m | DENBORA: 9 ordu

Triglav eta gero, herrialdeko bigarren tontor garaiena da eta Vrata-ko bailaran kokatzen da. Igoera eta jaitsiera leku beretik egin genituen, nahiz eta badiren aukera desberdinak zirkular moduan egiteko. Egun batean egin nahi bada, guk egin genuena litzateke igoerarik zuzenena.

Škrlatiča-ren esanahia "Sargar purpura" da eslovenieraz, harriaren berezitasunak eta ilunabarreko eguzki izpiek kolore morez janzten dutelako mendi hau. Nahiz eta Triglav-ek izan inguruko mendietan osperik handiena, hauxe egitea litzateke, gure iritziz, gomendagarriagoa (beti ere mendi bakartiagoak gustatuz gero). Desnibel handia duenez eta hau ere Aljažev Dom aterpetik abiatzen denez, parkinean goiz egotea komeni da. 5 euroko "Eko Tasa" bat kobratuko digute parkinaren sarrean; diru hau Parke Nazionala mantentzeko bideratzen omen da.

Atsedetik gabeko igoera du, baina ez da Triglav bezain jendetsua. Pagadi eder batean hasten da, ondoren zuhaixka artean sigi-sagan igoz, Vivac IV-ra iristen garen arte. Bertako bidegurutzean, eskuinera hartuko dugu ipar ekialderantz. Ordubate inguruan lepo batera iritsiko gara eta hemen hasten da saltsa. Ekipatutako eta ikurrez josita dagoen igoera zoragarri bat aurkituko dugu berriz ere, tontorrera 1,5-2 ordu inguruan galbiderik gabe era-

mango gaituena. Hori bai, ez despistatu gehiegi; ondo markatuta dago, baina ikurrak galduz gero, a zer nolako saltsan sar zaitezken. Arnesa, dispadora eta kaskoa eramatea komeni da.

KARAVANKE-KO ALPEAK

10 STOL (2236 m)

LUZERA: 11,5 km (igo-jaitsi)

DENSBELA: +1050 m | DENBORA: 5 ordu

Bled herriko souvenir denda guztietan aurki ditzakegun postaleetan argazki bat nabarmentzen da beste guztien gainetik: Bled-eko lakuarena. Guri lakuaren edertasunak baino, herria inguratzen duten mendiek liluratu gintuzten. Nahigabe bada ere, lakuaren ertzean murgialdi bat hartzen genuen oro, begirada parean ikusten diren tontorretara zuzentzen zitzaigun. Hala, mapa hartu eta mendi horiek zein ziren bilatzeari ekin genion. Mendizerra honetan tontor asko daude, baina guk horietako bat aukeratu genuen: Stol. Karavanke mendikatean kokatzen den eta igoera oso erreza duen tontorra da. Hau egiteko ez dugu materialik beharko.

Bled-tik Moste herrira joan beharko dugu gure ibilgailuaz. Hemen Zavrnica errekan gora doan errepedeak urtegi batera eramango gaitu. Hemendik bi aukera izango ditugu: bata, bertan aparkatu eta Valvasorjev dom aterpera oinez igo, edo bestea, kotxez pistan gora egin. Kontuan izan pista hau ez dagoela asfaltaturik eta errebuelta aldapatsuak dituela; hortaz,



bakoitzak erabaki dezala bi aukeretatik zein nahiago duen. Gu aterpera furgonetaz igotzea erabaki genuen egun honetan ez baikinen oso goiz abiatu.

Gure abiapuntua lehen aipatutako aterpea izan zen (Valvasorjec dom). Hemen ekialderantz basotik doan bidea hartu behar da. Ordu laurden inguru oinez egin ondoren, bidegurutze batera iritsiko gara eta zirkularra egiteko asmoz, ezkerrean, basoan gora doan zidorra hartu genuen. Tontorrera eramango gaituen bideak ez du berebiziko zailtasunik, baina aldapak ez du etenik. Beraz, lasai hartzeko moduko igoera da. Gure hurrengo helburua Prešernova kočā na stolu aterpea da, 2174 metrora dagoelarik (2-2,5 ordu). Aterpearen atzeko aldean tontorrerantz bideratuko gituden azkeneko seinalea ikusiko dugu. Poste hau aldapan beheara eginez, lepo txiki batean aurkituko dugu. Hemendik 15 minutuan Stol gailurrean izango gara.

Beharrezkoa zirkularrean egin nahi izan genuenez, berriz ere aterpera joan ginen. Aterpean kafea hartu nahi baduzue kontuz, "turkish coffe"-a eskainiko dizuzte eta ez du hemen ezagutzen dugunarekin zerikusirik. Aterpetik behera (hego-ekialderantz) zelai artean doan zidorra segi beharko dugu, mapan garbi ikusiko duzuen bezala. Bide hau oso ondo baliztatuta dago, beraz ikurrak segi eta ordu pare batean hasierako bidegurutzea iritsiko gara. Abiapuntu izan den aterpera doazen indikazioak segi eta ordu laurden batez goranzkoan egindako bidetik gure hasierako aparkalekura iritsiko gara.

11 GRINTOVEC (2558 m)

LUZERA: 16 km (igo-jaitzi)

DESNIBELA: +1800 m | DENBORA: 8 ordu

Karavankeko Alpeek Eslovenia eta Austriaren arteko muga natural gisa jokatzeko dute eta Grintovec da bertako tontorrik garaiena. Mapa bat hartuko bagenu, igoera desberdin asko dituela ikusiko genuke, bai zailtasun aldetik baita desnibel aldetik ere. Guk bertako bikote heldu eta jator baten gomendioei kasu eginez, Dom v Kamniški Bistrici aterpetik abiatzen den ibilbidea aukeratu genuen, igoera eta jaitziera egun bakarrean egin nahi baikenituen.

Hiriburutik (Ljubljana) 45 minutuan iritsi gaitzeko aipatu dugun aterpe azpian dagoen aparkalekura. Guk Kamnik herrian dagoen kanpinean pasa genuen aurreko gaua eta bertatik 20 minutu exaxetan iritsi ginen aterpeko aparkalekura. Hala ere, badago aterpetik gora pistan aurrera egin eta igoerari zatitxo bat kentzeko aukera, baina bidea estua da eta kotxe asko ibiltzen da, batez ere asteburuetan; hortaz, guk nahiago izan genuen aterpeko aparkalekuan kotxea utzi eta bertatik oinez hastea (ordu bete inguru besterik ez da oinez).

Seinale gorri batzuk topatuko ditugu hasiera hasieratik Grintovec tontorra eta Gojzova Koča na Kokrsken sedlu aterperantz bideratuko gaituztenak. Hauek segi ezkerrean, lehen bidegurutzeira iritsiko gara (ezkerrean, kotxeak doazen pista; eskuinera, Kamniška Koča aterpera doan zidorra; eta erdian, guk hartu beharreko bidezidorra). Zidor honek pistarekin bat egingo du 30-40

minutu ibili ondoren, eta hemen, tarte batez pista segi beharko dugu ia hau bukatzen den arte (bukatzeko delat konturatuko gara bertan aurkituko dugun kotxe mordoxkagatik). Kartel batean Grintovec eta aterpearen izena aurkituko ditugu eta hemen hasiko da amaigabea egin daitekeen sigi-saga luzea. Bikain baliztatutako bide honek Kokrsko sedlo lepora eramango gaitu (1793 m); hori bai, maldak ez du atsedeenik.

Behin lepoa gainditurik, aterpea ezkerrean ikusi ahal izango dugu eta baita Grintovec gailurrean eramango gaituen bidea ere. Oso zidor nabarmena da eta lepoan atsedean pixka bat hartu ondoren, eskuinera (gorantz) hartu beharko dugu. Segituan beste bidegurutze bat topatuko dugu eta guk ezkererantz segituko dugu (eskuinera hartuko bagenu, Skuta mendirantz joango ginatke). Hemendik aurrera, gure Euskal Herriko paisaiekin antzekotasun handia duen azken zatia gainditzea faltako zaigu. Ordu bete inguruan, gailurrean izango gara. Tamalez, gure azken hamaiketako izan zen Eslovenian etxera bueltan joan beharrean geundelako, baina inguruan genituen bista zoragarriek zapore mikatz hori gozo bilakatzea lortu zuten. Pena handiz baina parean ekialderantz ikusten genuen Skuta tontorra, baina hurrengo baterako utzi beharra izan genuen. Ez da gure lehen aldia izan Eslovenian eta ez da azkena izango.

KARTOGRAFIA

Julijske Alpe, Planinska Karta (1:50.000)

Sidarta Editoriala

Karavanke osrednji del, Paninska Karta (1:50.000) - SPD

Skrlatica



JOSEAN MULAS

DEDIKAZIOA, ESPERIENTZIA ETA TRANSMISIOA

Joseanek bizi guztia darama eskaladarekiko lotura estuan, eta pasio handiz bizitzeaz gaindi, belaunaldi berriei grina hau helarazten jakin izan du.

IORITZ GONZALEZ LERTXUNDI

Araotzeko Seriedad sektorean ekipatzen · ARGAZKIA: TXOBER



Josean Euskal Herriko kirol eskaladaren garapenean erreferentzia bat da, kirol honen hastapenetatik hasi eta egun arte. Horma handietan eskalatzen hasitakoa, kirol eskaladaren sorreratik jardun honetan zaletu ziren lehenengo belaunaldiko eskalatzaileretako bat da. Lehenengo pausuak Araotzen izan zituen batik bat, bertan bideak ekipatzen eta eskalatzen jardun ohi zuten izen handiko beste euskal eskalatzailer batzuekin batera.

Eskalatzailer emankorra izateaz gaindi, bere jardunak gazteen trebakuntzarekin lotura estua du. Euskal Eskalada Selektzioko hautatzailea eta Euskadiko Eskalada Teknikifikazio taldeko arduradun izan da urte askoan, eta berriki utzi dituen ardurak izan arren, bere inpronta oraindik nabaria da talde hauetan.

Joseanek gainera, urte askoan eskaladarekiko grina eta baloreak belaunaldi berriei transmititzen asmatu izan du, hainbat eta hainbat eskalatzailer direlarik honen lekuko. Esaterako, beste hainbat tituluren artean munduko txapelduna izatera iritsiko zen Patxi Usobiagak berak Joseanen gidaritzapean eman zituen lehen pausuak. Bere azken apopilo ezagunena Mikel Lincisoro izan daiteke, txapelketa internazionalen punta puntan diharduena, eta oso gaztetatik goi-mailako bideak egiten ohi tuak gauzkana (8c+ egitea erdietsi zuen 13 urterekin esaterako). Bere hitzetan, kirol eskalada bere bizia hornitzen duen erregaia da, eta gazteei modu berean bizi dezaten helarazten saiatzen da.

Josean harrapatzeko aukera izan nuen entrenamendu artean, eta hona hemen izandako elkarrizketa:

Bizi guztia eskaladari eskainia. Zer da zuretzat eskalada? Zer eskaintzen dizu?

Niretzat eskalada joko baten moduan hasi zen, eta denboraren poderioz tartea nuen bakoitzean egiten nuen jarduera bihurtuz joan zen. Egunerokotasunetik irteteko modu bat ere bada, eskalatzen ari zarenean jarduerak arreta handia eskatzen dizu, beste guztiaz deskonektatzen duzularik. Gainera, naturarekin kontaktua, lagunak, bidaiak eta hainbat gauza eskaintzen dizkizu, bizitzeko modu bat da azken finean.

Eskalatzailer gazteei eskaintzen dieran trebakuntza modu naturalean hasi zen, ez zen planifikaturiko zerbait izan. Hasiera batean anaiarekin eta "los Marañoses" deituriko eskalatzailer taldearekin eskalatzen nuen. Urte batzuen buruan rokodromora bakarrik joaten bukatu nuen, eta han, gerturatzen zen edozeini oinarritutako teknika batzuk irakasten nizkion, bakarrik ez eskalatzegatik. Denbora aurrera joan ahala gero eta gehiagori irakasten joan nintzen, gazteei eskaintzen nien denbora gehituz.

Urte askoan Euskadiko selektzioko hautatzailea izan zara orain dela gutxi arte. Hutsunerik azpimarratuko zenuke?

Federazioan lana egitea ez da erraza, eta are gehiago Mendiko federazioan, hainbat jarduera mota barneratzen baititu; mendiko lasterketak, eskia, xendazaletasuna, mendi eskolak, eskalada, nordic walking, etab. Guzti hau kudeatzeko baliabide anitz behar dira, eta egun ez daude. Nik uste jarduera mota bakoitzak azpiegitura propioa beharko lukeela, honela bakoitzean egiten den lana hobeto bideratuz. Esaterako, eskaladak bere klub edo talde propioak izango balitu eta Federazioaren lana hauetara bideratuko balitz, arazo askori konponbide hobetoak emango litzaizkieke. Hala ere, esan beharra dago honek ahalegin handia eskatzen duela, eta jende asko agian ez dago honetarako prest. Laburbilduz, 1+G



Araotzen Matxinada bidean, Ba · ARGAZKIA: WYSKAS

Leonidiosen eskalatzen (Grezia)





(Ikerketa eta garapen) gehiago. Sigla oso entzunak egun, baina kirol batzuetan gutxi ezarriak.

Taldean fisioterapeuta bat sartzea erabaki zenuen, Andoni Ormazabal fisioterapeuta ezaguna. Beste Kirol batzuekin alderatuz, esango zenuke arlo honetan aurreratzeko asko geratzen dela?

Lanean bi tendoi moztu nituen zoritxarrez, baina karmaren gauzak izango dira, honek balio izan zidan Andoni nirekin kontaktuan jarri eta elkar ezagutzeko. Berak esan zidan ni sendatu nahi ninduela eskalatzen jarraitu nezan, motibazio handia ikusten baitzidan. Honen ondorioz eskaladarekiko grina elkar elikatzen joan ginen, adiskidetasun handia sortuz. Ondoren niri gustatzen zaidan moduan taldean lan egitea proposatu nion Euskal Federazioan, eta honek bultzada handia eta oso giro ona gehitu zizkion taldeari. Honela, kirol eskaladaren alde fanatikoa eta hau inguratzen duen xarma ezagutu zituen. Andoniri buruz, hitz gutxitan, oso lagun ona, goi-mailako fisioterapeuta eta pertsona oraindik hobea.

Egun, eskalatazailerak trebatzen diharduzu?

Egun taldean lanean jarraitzen dut eta klub bat eratu genuen, Debagoiena eskalatazailerak. Umeei zuzenduriko talde bat dugu, eta honek aldi berean Eskalada Teknikifikazio Taldea hornitzen du.

Hogeita hamar urte baino gehiago eskalatzen eta gazteei irakasten. Zer uste duzu aldatu dela urte hauetan zehar Kirol eskaladan?

Asko aldatu da, lehen eskalatazailerak kopurua txikiagoa zen, baina harreman estuagoa genuen eta zerbait egiteko elkarri laguntzen genion, egiteko moduak zainduz, atzetik zetozenei gauzak ondo uzteko. Egun eskalatazailerak asko ikusten ditut, baina ideia edo balio ezberdinekin gurekiko. Ez dut uste hau hobetagoa edo okerragoa denik, baina ni neuhengoei identifikatuagoa sentitzen naiz. Oraingo egiteko moduek ez naute erakartzen egia esan, eta hau jada ezingo dut aldatu.

Zuen garaian eskalada jarduna bideak ekipatzeari guztiz loturik zegoen. Zer esango zenieke egungo gazteei honi buruz?

Egungo gazteek badakite egun dauden bideak norbaitek ekipatu dituela, baina ez dakite ekipatzen eta gainera ez dute inongo in-

Josean Euskal eskalada selekzioarekin Zaragozan





Zazpi iturri eskalada gunean 80ko hamarkadan. Josean, Julian eta Mugi · ARGAZKIA: MUGI

teresik. Tristeia da baina hori da errealitatea. Horregatik diot nik entrenatzaileak baino hezitzaileak behar ditugula. Nik trebatzen ditudan gazteei taladroa erabiltzen ikasteko aukera eskaintzen diet, eta interesa azaltzen duenari bideak ekipatzen irakasten saiatzen naiz. Beste garai batean hazitako eskalatzaileak dira, nik neuk bideen historiari buruz jarduten diet, norik ekipatua den, zergatik duen izen hau edo bestea, eta abar.

Bestalde, beste gauza bat aipatu nahiko nuke. Ez zait batere gustatzen ahalik eta gazteen bide gogorrena egiteari buruz sortzen ari den lehia. Guztiz kontra nago, ez al da hobeto izango adin aurreratuagoetan bide gogorrek eginez urte gehiagoan zehar eskalatzea? Hainbat gazte ikusi izan ditut oso gaztetatik bide gogorrek eginez hasi izan direnak, eta gero urte batzuetara eskalatzeara erabat utzi dutenak. Egun, gazteek orokorrean nahi dutena boulder zehatz bat egitea edo lehiaketa bat irabaztea da, garaipen zerrenda bat izateko. Nik uste beste garai bateko belaunaldia dela, eta onartu beharra dagoela, gustatu ez arren.

Orain dela urte gutxi arte metodikoki entrenatzea eskalatzaileen artean ez zegoen oso baloratua, edo emaitzei meritua kentzen ziela pentsatzeko joera zegoen. Beste aldagai batzuk baloratuagoak zeuden, hala nola berezko gaitasunak, indarra, esperientzia, eta abar. Joera hau aldatzen ari da? Zein da zure iritzia honi buruz?

Eskalada alde horretatik asko garatu da, beste edozein kirolen moduan. Lehen, mendira joaten zen abentura kutsua zuelako, sentsazio berriak aurkitzeko amoz, eta abar. Egun ez dago joera hori, ez da hain erraza abentura kutsua duen zerbait egitea. Ni eskalatzera joaten naizen bakoitzean abenturaren bila joaten saiatzen naiz, baina egun jarduteko modua ezberdina da. Gi-

zakiak estimuluak behar ditu, eta hauek aurkitzeko asmoz edo prestatzeko joera handia dago, kirol ikuspegitik hobetzeko eta hainbat helburu lortzeko (alpinismo, eskalada edo beste edozein modalitatetan).

Zure aburuz, nola lortu daiteke entrenatzaile ona izatea eta zein dira entrenatzaile on batek beharko lituzken ezaugarriak?

Arestian aipatu bezala, entrenatzaileak baino gehiago hezitzaile/entrenatzaileak behar ditugu. Esango nuke eskalatzaileen ahuleziak landu eta mundu honi aurre egiteko tresna edo baliabideak eskaintzea dela beharko lukeena.

Entrenatzeko filosofia zehatzen batean oinarritzen zara?

Nire filosofiaren oinarria beti errespetuaz gaindi, lagunartekotasuna eta taldekidetasuna izan dira. Teknikoki, mugimenduaren bilaketa dela esango nuke. Egun, eskalatzaileak prestatuagoak daude, baina hala ere honek ez du esan nahi lehen baino gehiago gozatzen dutenik. Maila baxuko zein goi-mailako eskalatzaileek berdin gozatu dezakete, baina egia da egun prestakuntza hobea dela.

Egun, zein da Euskal Herriko eskalatzaileen maila?

Maila aldetik, 90ko hamarkadarekin alderatuz baxuago gaudela esango nuke. Hemen, Euskal Herrian, beti izan dugu punta-puntako maila, eskalatzaileei eta rokodromoei dagokienez. Hala ere, esango nuke hau boladaka izan ohi dela, perretxikoen moduan, baina argi dagoena da maila ona egoteko baldintzak ezarri behar direla. Orainxe bertan eskaladan ez gaude punta-puntan, baina honi ez diot garrantzi handiegirik ematen, eskalatzaileek errespetua bezalako baloreak izatearekin konformatuko nintzateke.

Egun, badirudi entrenatzen duten gazteen artean joera handia dagoela beraien jarduera soilik lehiaketetara bideratzeko, haitzean eskalatzeari garrantzia gutxiago emanaz. Zein da zure iritzia honi buruz?

Gazteek gehien gustatzen zaiena egin behar dute, hori da nik esaten diedana. Egun, eskalatzailerik indartsuenek lehiaketetan eta haitzean eskalatzaren dute, *Ondra, Megos, Chanourdie, Raboutou, Schubert, Ghisolfi*, eta abar. Hauek 9b eta 9c mailako bideak egin dituzte, eta lehiatzaile izugarriak dira. Orain adibidez japoniarrek modan daude, eta Japonia haitz gutxi eta rokodromo asko dituen uharte txiki bat dela pentsatu beharra dago. Nik lehiatzaile handiak haitzean inongo presiorik gabe eskalatzeko eta izugarri gozatzeko ikusi izan ditut. Eskalada benetan gustatzen zaionari magnesioa gustatzen zaio, rokodromoa izan edo haitza izan.

Alberto Ginesen urre olinpikoari buruz. Jende gutxi espero zuen finalean zortzi onenen artean sartuko zenik, eta are gutxiago lortu zuen urrezko domina lortuko zuela. Zer iritzi duzu zuk emaitza honi buruz?

Ezusteko atsegina izan zen, azken lehiaketetan emaitza onik lortu gabe baitzebilien. Bere lagun eta eskalada-kide Mikel Linacisorok esan zuen oso sasoiko zegoela, baina azken aldia emaitzak ez ziren iristen. Bestalde, kontuan izan behar da gaztea dela eta etorkizunean maila hobetzeko aukera izango duela, batik bat abiadurako modalitatean. Bera Rocopolisen trebatu da arlo honetan, Bartzelonatik Iruñearaino joaten zelarik entrenatzera. Rocopolisen lan talde oso ona dago, bertako abiadura-entrenatzailea irailan munduko txapelkunordea izan berri da.

Joku olinpikoetan izugarriko lehiaketa burutu zuen, baina orain gogorrena dator, ez litzaidake gustatuko hemendik aurrera emaitza ezin hobe hauek inork exijitzea, hau ez baita futbola.

Oso gaztetatik ezagutzeko zortea izan dut, nire hautatzaile garaian, eta esan dezaket eskalatzailerik bezain pertsona ona dela, eta bai berak zein bere familiak kirol honi hainbeste dedikazio eskaini ondoren iritsitako saria izan dela, ondo merezitakoa.

Alberto eta bere entrenatzaile David Maçia maila honetako eskalatzailerik entrenatzeko eta hezteko azpiegitura gehiago behar direla aldarrikatzen ari dira. Badirudi beraz hemengo eskalatzailerik nazioartean lehiatzeko azpiegitura falta dutela. Ados zaude?

Hamarkadak daramatzagu azpiegitura eske, hemen bertan Euskadiko zailtasun txapelketak Iruñan egiten dira. Estatuko txapelketak egiteko erabili ohi diren rokodromoen maila ere oso eskasa da, adibidez Frantziakoekin alderatuz izugarriko aldea dago. Esango nuke gure eskalatzailerentzako azpiegitura hauen falta tamalgarria dela, lotsagarria ez esateagatik. Patxi Usobiaga bere garaian jada Pau eta Oloron bezalako hirietako rokodromoetara (Frantzia) joan ohi zen entrenatzera, eta egun (20 urte beranduago) egoerak berdin dirau, nik neuk trebatzen ditudan gazteek berdina egiten baitute.

Zure eskalatzailerik bizitzan oroitzapen, bizipen edo leku bereziren bat aipatu behar bazenu?

Oso oroitzapen onak ditut adibidez Araotzeko eskalada gunea sortzen hasi zenean, jasangarritasunaren balioa nola aurreikusi genuen esaterako. Honetaz gain, Verdon, Buoux, Rodellar edota Siuranako lehenengo eskaladak, Euskadiko lehenengo eskalada

txapelketak, "Los Maraños" deituriko taldearekin egindako eskaladak, Patxi, Mikel edo egungo eskalatzailerik egiten ditudan esaterako. Egun ere bidaiatzen jarraitzen dut, adibidez Leonidios (Grezia) edo Red River Gorge (AEB) azken urteetan ezaguturiko ederrenetarikoa izan dira.

Zein ezberdintasun azpimarratuko zenituzke hastapenetako Josean eta egungoaren artean? Aholkuren bat emango al zenioke?

Ezberdintasun nagusia egoera ezberdinak kudeatzen dutan eskarmentua dela esango nuke. Gazteagoak garenean dena azkarrago joan dadin nahi izaten dugu, entrenatu eta hurrengo egunean hobekuntza adibidez. Ikuspegia ere aldatu egiten da, esaterako nik pentsatzen nuen eskalada munduko kirolik onena zela, eta gainerako kirolak nik egiten nuenaren ordekoa edo bigarren mailakoak zirela. Denboraren poderioz konturatu naiz bakoitzak bere erara gozatu dezakeela egiten duena pasio edo grina handiz bizitzen badu. Ez zait gustatzen aholkuak ematea zentzu honetan, onena bakoitzak gustatzen zaiona egitea dela uste dut, honela zoriontsu izateko.

Nola ikusten zara etorkizunean?

Ez dakit egia esan, baina onena etortzeaz dagoela uste dut, eta nahiko nuke...

Espero dut egiten dudana motibazio handiz izatea behintzat.

Identifikatzen zaituen lema edo esaldiren bat?

Niretzako lema bat badago, nire bikoteak gogora arazo ohi didana; "ariskatzen ez duenak ez du irabazten".

Galdetu ez dizudan zerbait aipatzeko?

Egun jende asko dago eskalada guneetan, eta honek batzutan jarrera desegokiak sortarazi ditzake. Esaterako zaborra, txakurrak, zarata, bertako arauak ez betetzea, bideetan zinta finkoak, eskalatzeko txandak, eta abar. Eskalada debekurik ez egotean oinarritu izan da beti, nolabaiteko jarrera erregelatuta...Baina argi dagoena da geuk arau batzuk ezarri eta betetzen ez baditugu, beste norbaitek ezarriko dizkigula, segur asko ondorioak larriagotuz.

Aretxabaletan, eskaladako entrenamendu eta lesioei buruzko jardunaldian



LOS SECRETOS DE ALTUBE

CIRCULAR EN BTT

DESDE AMURRIO

Siempre me he sentido un enamorado de mi tierra, Amurrio, en pleno Valle de Ayala, donde el verde de los prados domina y se respira calma allí donde vas. Un lugar donde la gente y el ocio están ligados a la montaña y, además, un entorno privilegiado para la práctica de la BTT. Y es que, montes de suaves contornos permiten calentar antes de emprender ascensos mayores a las montañas de las sierras cercanas: Gorobel, Urkabustaiz, Arrola... Hoy os voy a proponer esta ruta de 53 km y 1500 metros de desnivel positivo, que parte de la localidad alavesa en busca del Parque Natural de Gorbeia, visitando los rincones más singulares del bosque de Altube y sus alrededores. Hayas, cascadas, y un sinfín de fotografías de concurso nos esperan en este periplo por la mayor masa forestal autóctona del País Vasco.

La alegría se apodera de nosotros al coronar Burbona Occidental

TEXTO Y FOTOS



Iván Ruíz Rotaeché
(Amurrio, 1982)

Miembro del equipo de redacción de Pyrenaica, socio de los clubes Mendiko Lagunak de Amurrio y del Club de Orientación Bidea.



Damos comienzo a esta aventura en la plaza Juan de Urrutia de la villa ayalesa (220 m), para aproximarnos al polideportivo Bañueta. Tomamos aquí una serie de pistas y senderos que, a través de Larrinbe, llevan a la ermita de San Mamés, donde cruzamos la carretera que lleva a Vitoria-Gasteiz. Buscamos la unión con Lezama por un antiguo camino que asciende por detrás de la gasolinera, y desde la iglesia de San Martín iniciamos el ascenso clásico al monte Askuren o Beratza, o como los lugareños lo hemos conocido durante años: monte San Pedro (710 m). Esta cima de la sierra de Urkabustaiz, además de ser un perfecto mirador sobre el valle de Arrastaria y la Sierra Sálvada o Gorobel, es humilde testigo de la Guerra Civil. Cerca de la cruz encontramos varias trincheras, posición que perdieron los republicanos el 26 de mayo de 1937. En las di-



Los reflejos convierten Lamioxin en un lugar mágico




ferentes excavaciones realizadas, se han encontrado elementos como casquillos de fusil y monedas.

Alternando pistas y prados llegamos a Uzkiانو, desde donde remontamos la cota que marca la cúspide de la sierra de Urkabustaiz: San Martín (729 m). A través de esta loma herbosa bajamos a Oiardo, pasando junto a la ermita de Goikoama, solitaria en un descampado. Bajo el monte Zorrobarro, una parcelaría une este núcleo con el de Goiuri, donde no podemos dejar de visitar la famosa cascada de

más de 100 metros. Podemos disfrutar de su mejor imagen cruzando con cuidado las vías del tren; allí, un breve sendero termina en un balcón natural sobre el acantilado formado por el río Oiardo.

Se han encontrado en Beratza elementos como casquillos de fusil y monedas



El siguiente paso es seguir un cortafuegos desde la pista de acceso al mirador situado en la vertiente opuesta. Por dicho paso de contención de incendios, se llega a un sendero que tiene su comienzo justo antes de llegar al colegio abandonado de Izarra. Ya dentro de los límites del Parque Natural de Gorbeia, perdemos altura entre hayas hasta llegar a la laguna de Lamioxin; allí donde dicen que vivían las *lamias*, esos seres mitológicos con pies de pato y largas cabelleras rubias que peinaban con peine de oro y que, con sus cantos y encantos, conquistaban a los jóvenes del lugar, de quienes nunca más se volvía a saber después. Es un lugar mágico, embrujado diría yo; unos árboles secos emergen de la laguna creando una imagen única con el reflejo del agua.

El sendero desciende al fondo del bosque de Altube después (500 m), donde enlazamos con el camino que remonta hacia oriente. A medio ascenso escuchamos el ruido del agua rompiendo contra las rocas... es la señal de que nos encontramos cerca de las impresionantes cascadas del arroyo Corraladas. Abandonamos el camino por estrecho sendero por un momento, para disfrutar de las colas de caballo que forman las aguas, al deslizarse sobre las rocas cubiertas de verde musgo. Se pueden contabilizar tres saltos principales; a mayor cota, mayor altura tiene cada cascada; en días de calor invitan al baño a pesar de encontrarnos a la sombra del bosque.

Pero el camino es largo y debemos continuar hacia lo alto del puerto de Altube, pasando un túnel bajo la autopista y afrontando un breve tramo donde tendremos que empujar la bici si no estamos fuertes. Al salir a la carretera, la cruzamos y en la primera curva del puerto tomamos el sendero que asciende al cordal de los Burbonas. Así, a través de un inmenso hayal, disfrutamos de una senda ideal para rodar con la bici, en sentido sur-norte dejaremos atrás las cimas de Kamurazabal, Astaiz, Burbona Occidental (931 m) y Burbona Central (934 m), visitando los buzones de estas dos últimas. En este tramo también podremos encontrar restos de trincheras o, con un poco de suerte, algún ciervo. En una ocasión, recuerdo como dos de estos ejemplares corrieron un centenar de metros a la par nuestra, para después cruzar la senda unos 20 metros frente a nosotros y desaparecer bosque abajo... Una experiencia que nos hizo sentir pequeños ante la grandeza de la naturaleza.

Escuchamos el ruido del agua rompiendo contra las rocas

Desde el Burbona, girando al noroeste, un largo descenso que alterna bosque con amplias panorámicas por las faldas del Nafarkorta, lleva a las campas de Katzabaso, muy cerca de la conocida ermita de Garrastatxu. Anexa a

esta, se encuentra la plaza de toros que se dice fue la primera en Euskadi.


Aquí se sigue otro cordal por el que bajamos a Baranbio quemando frenos. Podemos rellenar el botellín en la fuente del pueblo, antes de afrontar el duro ascenso por trialera que lleva al collado que antecede al monte Atxagan; fácil de identificar por sus antenas. En el collado se encuentran las escombreras de unas antiguas minas de Blenda y Galena; se trata de un buen lugar para iniciar a los pequeños de la casa en la recolección de minerales.

Cambiando de vertiente una senda baja a la carretera de Berganza, la cual seguimos río abajo durante poco menos de medio kilómetro. Es entonces cuando se cruza el arroyo, para tomar un sendero que asciende de forma acusada hasta las faldas del monte Kuskumendi. Al salir a la pista principal, se cruza la misma para tomar el camino que lleva al imponente caserío de Pordio, con amplia panorámica ya sobre Amurrio.

Poco más adelante, encontramos una bajada técnica, con piedra suelta, que lleva al caserío de Mariaka, el cual fue torre en sus primeros días en el siglo XIII. Son varias las versiones que tiene la leyenda de "Mariaka el Fuerte", que hacen referencia a uno de los moradores de esta torre en tiempos de las invasiones musulmanas. Una de las que me ha llegado a mí desde pequeño, que es imposible saber lo alterada que ha podido ser después de transmitirse de boca en boca durante siglos,

La panorámica al valle de Arrastaria es amplia desde el Askuren





El frescor de las cascadas de Corraladas invita a una parada



Escombreras bajo el monte Atxagan

cuenta lo siguiente: al llegar las tropas musulmanas a Amurrio, su jefe aceptó un duelo entre su mejor guerrero y nuestro protagonista en un combate mano a mano. Si vencía el morador de Mariaka, hombre de gran tamaño, las tropas no invadirían la villa. El guerrero musulmán era bastante más pequeño, pero a sabiendas de esta desventaja, se embadurnó en aceite para que su contrincante no pudie-

ra estrangularlo. Así, cada vez que "Mariaka" intentaba cogerlo, este se le resbalaba y escapaba. Desesperado al ver que no conseguía darle caza, ideó un plan que le daría la victoria. Metió la mano entre sus piernas, internándola por la oquedad que el ser humano utiliza para hacer de vientre... ¡y ya no pudo escaparse más! Absortos ante esta situación, los musulmanes huyeron avergonzados ante la algara-

bía del pueblo de Amurrio. Cada vez que paso junto a este caserío de grandes dimensiones, no puedo evitar que me venga tan inimaginable historia a la cabeza.

Unos metros más abajo, se cruza el arroyo Pagatxa por puente de madera y se sigue un serpenteante y divertido sendero paralelo al cauce. Este enlaza con la pista de Abiaga, lugar habitual de paseo de los *amurriarras*; desde donde ya se llega sin problemas al polideportivo, donde podemos limpiar la bici en el lugar que se ha habilitado especialmente para ello.


Pese a la dureza del recorrido, la sensación al finalizar será de agradecimiento; agradecimiento a un bosque que no nos habrá dejado indiferentes, ya que nos habrá mostrado su mejor cara: la cara de los rincones singulares, solitarios, y ante todo... mágicos.

TRACK DE LA RUTA:



FE DE ERRATAS

Pyrenaica 284, pág 59. Por error se ha repetido una imagen, se incluye la correcta (Hego Euskal Herrian zuhaitz motzak bisitatzeko toki aproposak. Lerro gorri markatutako eremuak zuhaitz motzen gutxi gora beherako kokalekua adierazten du kasu bakoitzean)





CENTENARIO DE ‘EUZKO MENDIGOIXALEEN BATZA’

IÑAKI GARCÍA URIBE



Un grupo de mendigoixales muestra una bandera de Euzko Mendigoizale Batza · ARGAZKIA: SABINO ARANA FUNDAZIOA

El 3 de abril de 2021 cumplió 100 años la organización que llegó a agrupar multitud de asociaciones ‘montañeras-políticas’ que, desde 1908, habían nacido en torno al único partido nacionalista existente, EAJ-PNV. En 1921, en Arrate, tras hacer cumbre en Kalamua, 18 grupos vizcaínos, 10 guipuzcoanos y uno alavés deciden unirse.

A los pocos meses, el partido que los vio nacer se divide en dos, Comunción y Aberri. A su vez, el Euzko Mendigoixaleen Batza (EMB) se divide, y muchos forman parte de Yagi-Yagi, que también se hacían llamar EMB.

